

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea – Asociación de Municipios Vascos
2. Sektorea:	1982an eratutako elkartea da, euskal udalgintzan oinarrituta. Udal hautetsiek gidatzen eta osatzen dute erakundea. Bere helburua da udalen autonomia defendatzea eta bestelako erakundeen aurrean toki bakoitzeko interesak ordezkatzeko. Tokiko gobernuen politika publikoak gauzatzeko balio komunak eta lankidetzak ditu bidelagun. Egun EUDELeke kide dira EAEko udalerririk guztiak, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko eta Trebiñuko enklabeak (Burgos) udalerririk batzuk ere.
3. Langile kopurua:	19
4. Webgunea:	www.eudel.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Bere egitekorik garrantzitsuenak da udal-kudeaketa eraginkorra sustatzea EUDELeke kide diren udal guztien artean. Horretarako, ezinbestekoa da EUDELen eta gainerako erakundeen arteko lankidetzak, arauak garatu ahal izateko.</p> <p>Elkartearen jardura profesionalaren baitan, azpimarratzekoa da 2016ko apirilaren 7an onartutako <i>Euskadiko Toki Erakundeetarako Legea</i>. Horren bidez, udalen funtsezko egiteko aitortu zitzaion EUDELi eta izaera publikoko funtzioak esleitu zitzaizkion: dirulaguntzen kudeaketa, udal-zerbitzuak ematea hitzarmenen bidez, kontratazio-zentralak sortzea eta negoziazio kolektiborako legitimazioa balioestea. Euskal udalgintzaren eta lankidetzaren oinarritutako gobernantza onaren aldeko bidean, hori guztia gauzatzeko hainbat sailetan dago banatua EUDEL: Berdintasuna; Euskara; Funtzio publikoa; Gizarte politika; Hezkuntza-Gazteria-Kultura-Kirola; Hirigintza; Ingurumena; Immigrazioa; Bizikidetzak-Giza Eskubideak; Modernizazioa-Digitalizazioa-Berrikuntza.</p>

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak:	Joseba Intxausti
Helbide elektronikoa:	jintxausti@eudel.eus
Telefonoa:	94.423.15.00

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	BERDINSAREA , Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Euskadiko Udalen Sarea
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>BERDINSAREA da emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako euskal udalerrien sarea, Emakundek eta EUDELek bultzatuta eta koordinatuta.</p> <p>EUDELen eta Emakunderen arteko berdintasunaren aldeko aliantza 2006an sortu zen, Berdintasunerako Legea onartu eta urtebete beranduago. Harrezkero, berdintasunaren arloko jardunbide egokien eta erakundeen arteko lankidetzaren adibide izan da.</p> <p>15 urte baino gehiagoko ibilbidearekin, <i>Berdinsarea</i> erreferente gisa finkatu da Euskadin nahiz Europan, eta esperientzia eredugarritzat hartu du Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluaren (EUEK) Berdintasun Batzordeak.</p> <p>Ekimenaren helburu nagusia da berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka udal programak eta zerbitzuak bultzatzea, indartzea, koordinatzea eta ebaluatzea.</p> <p>Sareak EAEko hiru lurraldeetako 79 euskal udalerri eta Aiarako kuadrilla biltzen ditu. <i>Berdinsarean</i> parte hartzen dutenak berdintasunean aurrera egiteko politika eta ekintza berritzaileen diseinuaren aitzindari dira, toki-mailan. Sareak euskal biztanleriaren % 80 biltzen badu ere, bere ekintzak euskal udalerrien % 100era hedatzen dira. Ekintza horiek EUDELek koordinatzen ditu, Emakunderekin elkarlanean, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien babesarekin.</p> <p>Osoko Bilkura da <i>Berdinsarearen</i> organorik gorenena, eta sareko kide diren udaletako alkateek eta zinegotziek osatzen dute. Organo horren egiteko nagusia da urteko Ekintza Plana onartzea, bai eta aliantza eta proiektu eraldatzaile berriak sustatzea ere, berdintasuna erakundeen eta gizartearen lehentasun gisa jartzeko.</p> <p><u>Etorkizunera begira, Euskadiko 2030 Agendarako proiektuak diseinatzea eta abian jartzea da <i>Berdinsarearen</i> egitekorik nagusia:</u></p> <p>- <u>Zaintzen tokiko eredu bat</u> sortzea, zaintzaren erantzunkidetasuna oinarri hartuta, ikuspegi feministatik.</p>

- Indarkeria matxistaren biktimen arretea integralerako tokiko koordinazio protokoloak eguneratzea.

- Emakumezko alkate eta zinegotziek Virginia Woolf Basqueskolan (udal politikaren esparruan emakumeak ahalduntzeko eta eragiteko gunea) egiten duten lana babestea.

- Berdintasunaren aldeko tokiko hautetsien sarea bultzatzea, beren udalerrietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerantz jotzeko prozesuak eta proiektuak bultzatzen dituzten hautetsiak modu aktiboan inplika daitezzen.

Euskararen normalizazioaren bidean, proiektua abian jarri zenetik (2006) EUDELen eta Emakunderen arteko lankidetzan, **BERDINSAREAK** bat egin du beti '*Herri Administrazioen arteko Euskarazko Harremanak Areagotzeko Metodologia*'rekin, Eusko Jaurlaritzak sustatutako ekimenarekin, alegia. Konpromiso horri euste aldera, sarearen barne- eta kanpo-komunikazioa ele bitan gauzatzen dute EUDELek eta Emakundek.

- Ezarritako irizpide nagusia da euskara bermatuta egotea bai informazioa emateko orduan, bai solaskideak euskararen aldeko hautua egin ahal izateko aukera emateko orduan. Administrazio desberdinen arteko bilera ofizialetan, lehen hitza beti egiten da euskaraz. Eta euskararen ahozko erabileraren batezbestekoa % 80 izango litzateke.

- Idatzizko komunikazioari dagokionez, idatzien batezbesteko ekoizpenaren % 40 ele bitan egiten da; eta % 60, berriz, euskara hutsean. Beraz, zentzu horretan, bermatuta egongo litzateke euskararen presentzia eta eskaintza.

- **BERDINSAREA**ren lantaldeari dagokionez, euskaraz komunikatzeko gaitasuna duten langileek osatzen dute. Egun 79 kidez osatua dago, alkate eta zinegotziak barne. Berdintasun teknikariari dagokionez, euskaraz idazteko zein hitz egiteko maila altua dauka. Proiektua abian jarri zenetik, egonkortuz joan da euskararen idatzizko zein ahozko erabilera eta, harrezkero, euskara nahiko egonkortuta dago. Horren adibide dugu ere **BERDINSAREA**ren web-orria eta gune digitalean argitaratuta dagoen dokumentazioa, edonoren eskura:

www.berdinsarea.eus

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...



BERDINSAREA

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA